



## ❖ GABONAK

### Ur festa erraldoia, adin guztietarako

Udalak ur festa erraldoia antolatu du gaurko, Udal igerilekuan. 10:00etatik 13:00etara uretan jolasean aritzeko aukera izango da. Sarrera, doan. ||

### Patxin pailazoaren emanaldia Portun, gaur arratsaldean

Gabonetan, umeentzako ekitaldiak antolatu dituzte Portun. Gaur Patxin pailazoaren emanaldia izango da, txikien gozameneko. 18:00etan hasita. ||

### 'Kika superbruja. Viaje a Mandolan' pelikula Biterin, bihar eta etzi

Zine emanaldi berezia prestatu du Udalak biharko eta etzitarako, Biterin. Arratsaldeko 17:00etan hasita, *Kika superbruja. Viaje a Mandolan* komedia jarriko dute, Disney-ek egina. Pelikula honetan, Kika Mandolanera joaten da. Bertan, Mandolani sorginkeria egiten diote, eta laguntza behar du ateratzeko. Kikarentzat erronka paregabea izango da hori gainditzea. ||

### Bi ipuin kontaketa, etzi goizean

Ipuin ordua antolatu dute Udal Liburutegian etzi. Bi saio izango dira: aurrenekoa, 11:00-etan, 3-4 urte bitarteko umei zuzendua; eta bigarrena 11:30etan, 5-7 urte bitartekoei zuzendua. Udalak antolatzen du, eta Eusko Jaurilaritzen laguntza jasotzen du. ||

## ❖ KULTURA ETA TURISMO BATZORDEA

### Inauteriak hizketagai, bihar

Kultura eta Turismo Batzordea izango da bihar, eta bertan, besteak beste, inauterietako egitaraua, kartela eta abar izango dituzte hizketagai. 18:00etan hasita. ||

## GABONETAKO EKINTZAK: Olentzerok umeen muxu eta eskariak jaso zituen, etxez etxe opariak banatu aurretik

Kaxkoan zehar goxokiak banatu ondoren, Udaletxean egin zuen opari-tratua gerturatu zitzaion ume bakoitzarekin. Gauerdia pasata, etxez etxe ibili zen, eskatutakoa uzten.

PORTUTIK gora korrika, astoa aldamenean zuela iritsi zen larunbat arratsaldean Olentzero Hernanira. Leokan elkartu zen lehendabiziko umeekin, Plazan zain baitzituen gainontzekoak. Kaxkoan zehar buelta egin ostean, Udaletxeko sarreran egin zien harrera, banan bana, arratsalde osoan zain egon ziren ume guztiei. Urduri zeuden batzuk, eta emozioz beteta besteak, baina guztiak zuten helburu bera: Olentzerori muxu bat eman, eta oparia eskatzea.

Pixkanaka hustu zen Plaza, eta herritar guztiak afaltzera erretiratu zirenean hasi zen ikazkinaren misioa. Etxez etxe, eskatutako opari guztiak banatu zituen. Ondoren, Onddi mendira itzuli zen, datorren urtera begira, lanean hastera. ||



Olentzeroren aurreneko oparia, muxu bat eman bezain pronto jaso zuten.



Ikastoletako neska mutilak kantuan ibili ziren Gabon gau goizean. Argazkian Urumeako ikasleak.



Ume, gazte zein helduak, herria girotzen aritu ziren goiz eta arratsalde.

**JOSU ALKORTA**  
harategia

**NIGAN IZANDAKO KONFIDANTZAGATIK,  
ESKERRAK BEZERO GUZTIEI.**

**2012. URTEA ONDO HASTEAN OPA DIZUET,  
ETA ZER HOBETO NIRE DENDAKO  
HARAGIA DASTATUZ.**

Nafar kalea 11 Tel.: 943 551 681

**OINDI**

taberna

**NAGUSIA, 25  
HERNANI  
943 557 509**



**Brintza**

Lan-Aholkularitza -  
Fiskala -  
Aseguruak Inbertsioak -  
Zerbitzu Juridikoak -

www.brintza.com

Urbietan 15 - Hernani  
Tel.: 943 331 267 - Faxa: 943 330 892

**TELEFONOAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622  
 ● **Autobusak**: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 ● **Anbulatorioa**: 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103  
 ● **FARMAZIAK** ● Egumez: **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauz**: **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

**EGURALDIA** **GAUR** Eguraldi egonkorra izango da. Hego ukituko haizea ibiliko da, eta tenperaturak gora egingo du, zertxobait: Min.2° / Max.12°  
**BIHAR** Zerueta garbi egongo da egun osoan. Hego haizea zakar ibiliko da eta tenperatura maximoa 14º-ra igoko da. Min.2° / Max.14° (euskaime)

## EGIN DEZAGUN BIDEA EKIMENA



Mariskadarako errifak, eta beste hainbat material saltzen aritu ziren Kixkaleko ixkinean, Gabon gau egunean.

## Kalejira eta antzerkia azken ostiralean, preso eta iheslarien alde

Lau zutabetan aterako da kalejira ostiralean, 20:00etan: Zikuñagatik, Portutik, Antziolatik eta Etxeberritik. Plazan egingo dute bat, 20:30ak aldera.

URTEA bukatzean den hone-tan, Hernaniko *Egin dezagun bidea* herri bilguneak, ekitaldi bereziak antolatu ditu datozen egunetarako, preso eta iheslarien alde. Egun nagusia ostiralekoa izango da, kalejira eta antzerkiarekin.

### Lau auzotara, gonbidapena

Urteko azken ostirala izaki, ekintza berezia antolatu dute herri bilguneak. Zikuñagatik, Portutik, Antziolatik eta Etxeberritik aterata, kalejira joango dira lau zutabeak, Plaza Berrin elkartzeko arte. Auzo guztietan 20:00etan egin dute hitzordua, ondorengo puntue-

Zikuñagan, bariantea hartzen den errotondatik aterako dira;

Portun, plazatik;  
Antziolan, errotondatik;  
eta Etxeberrin, bolatokitik

tan: Zikuñagan, bariantea hartzen den errotondan; Portun, plazan; Antziolan, errotondan; eta Etxeberrin, bolatokian. Herri bilguneak dei egin diete herritarrei beraiekin bat egin, eta kalejira parte hartzera.

Lau zutabeak Plazan elkartuko dira, 20:30ak aldera,

eta bukatzeko ekitaldi berezi bat antolatu dute, tartean, herri antzerkiarekin.

**Martutenera martxa, 31n**  
Urteko azken egunean Martutenerako kartzelara martxa antolatu dute. Hitzordua 11:00etan egin dute, Astigarragako Gruas Biurranen.

**Urtarrilaren 7an, Bilbora**  
Azkenik, presoan eskubideen alde manifestazioa egingo da urtarrilaren 7an, eta bertara joateko deia egin diete herritarrei. Autobusean joateko izena eman behar da aldeztatik Txili, Oinndi edo Garin tabernetan. ||

## GOIZ EGUZKI



Argazkia: J.F. Manjarres

## Txistorra jan eta sariak banatu zituzten, Santo Tomas egunean

Santo Tomas eguna ospatu zuten asteazkenean Goiz Eguzkiko kideek, txistorra ogi tartean janaz. Ohi bezala, sabela ondo bete ostean, kale zein karta jokoan sari banaketa egin zuten, eta irabazleak hauek izan ziren: musean, Primitivo Gonzalez eta Dani del Rio; tutean, Daniel Carrera eta Manolo Morato; puntuan, Patxi Apezetxea eta Lukas Yuste; eskoban, Abelardo Peinado eta Tori Fernandez; tokan Mari Carmen Arraras eta Jose Lopez; igelean, Loren Oyabide eta Francisco Navas; botean Tomasena Escarmena eta Francisco Garcia; eta azkenik, dardotan, Maria Luisa Cartujo eta Andres Barros. ||

## FUTBOLA

### Azken minutuetan berdindu zuen Hernanik Alaves Bren kontra

Bana berdindu zuen Hernanik ostegunean Alaves B taldearen kontra, galtzen joan ostean. Atsedendira golik sartu gabe iritsi ziren bi taldeak, eta bigarren zatiko 32garren minutuan talde gas-teiztarra aurreratu zen, 0-1 Ivan Claverren golarekin. Hernanik ez zuen etsi, eta hiru minuturen faltan, Uriok sartu zuen berdinketa-ren gola. Hernani 19garren da sailkapenean, eta Laudioeren kontra jokatuko du datorren partidua, Urte Zahar egunean. ||

## TXANTXANGORRI

### Urtarrileko ehiza txapelketan, izen-ematea

Txakur eta guztiko ehiza txapelketa jokatuko da urtarrilaren 8an eta 15ean Epeleerrek eta Usoko errekan. Txapelketa Txantxangorri elkarteak egingo da, eta apuntatzeko epea urtarrilaren 5a arte egongo da zabalik. Izena emateko elkartetik pasa behar da, goizez edo arratsaldean, 10:30etatik 12:30etara edo 19:30etatik 20:20etara. Prezioa: 40 euro. ||

## BOLA

### Burugain txapeldun, Olentzero Sarian

Olentzero Saria jokatu zen joan den asteburuan Zerainen, eta bolari onena, Elur Txoriko Migel Burugain izan zen, 36 brila botata. Antonio Alustiza izan zen bigarrena, 35 botata, eta Pedro Lazkano hirugarrena, 34 botata. Jose Ugaldek eta Antonio Minerrek 32 brila bota zituzten. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jarduera duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**† CELIA MOLINERO VIVO**  
Herenegun hil zen, 50 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Senarra: Fernando Serrano; semea: Erik; gurasoak: Bartolomé (†) eta Francisca; ezkon gurasoak: Manuel eta Vicenta; anai-arrebak: Marisol eta Esteban (†), Paco, Fati eta Joxean; osaba-izebak: Andrés eta Andrea, Piedad eta Paco; hilobak: Izarne, Eustaquio eta Izadi; laguna: Maika; lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezteza **GAUR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**Hernanin, 2011ko abenduaren 26an**

Helbidea: Maria Magdalena, 8-4ª  
OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 11:45ak arte.

**INÍGO ARREGI ZUBIARRAIN**  
JAUNA

*Eta hala, poliki-poliki  
azken argia itzaliz  
etxe zahar maitagarri hartan  
leihu guztiak zabalik*

**URUMEA IKASTOLAKO ZURE LANKIDEAK**  
**ETA GURASO ELKARTEA**

Elizkizuna **GAUR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **19:30etan, DONOSTIAKO SAN VICENTE** elizan.

**Hernanin, 2011ko abenduaren 26an**

## IRAGARKI MERKEAK

**ETXEKO KONPONKETAK** egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

**YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA.** Fotodepilazioa, eguberrikako prezio bereziak 2X1. Beharpenak aurpegi tratamenduetan. Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzeko. Plataforma bibratzailea. **Atzietan 2, behean. Tel. 943 55 32 78.**

**Alicia C.C.** Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: **Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia...** Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,.... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**